

Diosala

El Diario Vasco, 1986-12-06: 58.

"Agur" baino lehen, "ariyo" zen; edo "ayo", "adio"; seguraski badira gure herrian diosala egiteko modu gehiago, euskalkien eta ohituren arabera, baina nolana, agurra edozeini zor zaitzaion oso gauza sinplea zen: batak besteari bizi dela adierazteko modua.

Hori baino gehiago; behar bada: ezagutzen den norbaiti ezikusaren itsuskeria zeharkatzeko bide bat.

Baina hainbeste egoeratik pasa da gure herria, itsuskeri hau ez da berria. Askotan pentsatzen dut nolakoak izango ziren gure artekoak karlisten gerratean eta geroko ondore latz haietan; baina neuk nire aitak "diosala" deitzen zion hau dela eta sentitutako egoera batzuk aipa nahi nituzke.

Errepublika garaia artekoa ez zait gogora etortzen, baina hau etorri zenetik entzun nituen: "Agur" eta "Adiós" kalean muturreraten; ezer ez esatea baino okerrago, noski; baita gaiztoa zera zen: zeu begiradarekin zai-zain zaudela zure muturraren aurrean pasatzerakoan bizilagunak ezikusia egitea.

Gorroto piska bat behar zen hau egiteko.

Ba dator *gerra*, edo erortzen zaigu infernutik!, eta bezperan lagun izan eta haserratzeko betarik gabe begiradak ihes egiten hasi ziren. Tiro erdi bat entzun aurretik! Baina, tira, gerra, gerra da, eta gorrotoak sorrarazi duen guduaren denbora madarikatu honetan gaiztakeria guztia itxita ibiltzea posible izan bazen, askok kalean zehar ibili beharrean aurkitzen zirenean ez zituen ireki ere egingo.

Eta errugabea zelakoan herritik irten gabe geratu egin zena, inor atejoka etorriko ote zen beldur.

Eta etortzen ere hasi egin ziren!

Diosalik gabeko garai mutu izugarri honetan noizpait elkarri inoiz esatea bururatu ere ez zitzaiona ausarki aurpegiratzen hasi zirenean: emakume kaskamotzei, gizonburu umilatuei, batzuei gehienez ordubeteko bizi geratzen zitzaizola zeritenei!

Baina *hau gerra zen!*

Eta bukatzen da gerra; pasatzen dira oso mantso bizpauru urte; itzultzen da norbait, ezinbestez, berea den herrira, denak lagunak edo senideak ginen herrira, nire kasuan aitarik gabeko Andoaina; gaztetxoa nintzen; eta herriko kaletan begi pare baten bila ibilia naiz, ea nor ausartzen zen niri agurraren aurreko begirada argi bat botatzea; askotan urrutitik norbaitek; noizbehinka lagunkiro begirada garbia eta agurra bere ere. Baina gehienak ihes egiten zioten konpromisoari.

Egun gaiztoak izan ziren haiek.

Baina *gerrostea zen!*

Francoren denboran izan dugu franko beta gauzak aldatzen ikusteko, belaunaldiak aldatzen zihozten arabera; hala ere... askotan aitetik semeetara edo aitonetatik seme-bilobetara pasiak ziren begirada zahar-okerrak.

Izugarriak!

Hiltzen da diktadorea. Hau hil zenerako hasiak ziren (salatariez kanpo) transizio urteak zihoazen arabera, begiradak ere aldatzen, eta agurrak doinuz gozaten, eta begiak argi berri bat estreinatzen.

Gehienak Euskalerrian anai sentitzen hasiak ginen.

Berriz *hauteskundeak ospatzen hasi ordurako* mitinen eta elkarri egunkarien koloreak ikusten jarri ginen arte. Normala! Herritarrak garenez gero, batzu kristau ere bai baigara! Baina berriz ere, eta oraintsu, hasiak gara biltoki berean anai sentitzen ginen gizaki arruntak, baina gizakiak hala ere, "agur" gizaki bezela esan eta animaliak bezala ez erantzuten. "Agur" bera erabiltzen dugunok; zentzu berean, izpiritu beraz. "Agur" esaten dugunen artean ere; elkarrekin hainbeste irain jaso genuenok ere hasiak gara begiradak gordetzen edo desbideratzen!

Zer Euskadi klase egin nahi dugu, egitea espero ba dugu, honela portatzen ari garen abertzale euskaldunok?

Agur garbi bat zuri, irakurle euskaldun horri, hau da gutxienez zor dizudana eta.